

Errugbian jokatu nahi duten neska-mutilak Landarera azaldu bihar

Deialdia kadete (83 eta 84ean jaioak) eta jubenilentzat (85 eta 86ean) da.



Hernaniko Errugby taldeko batzuk. Zutik ezkerretik hasita: Donosti, Gurutz, Ander, Gurutz, Harkaitz, Pintado, Aimar, Haritz, Xabier, Nani, Iker, Xente, Jokin eta Iñaki. Behean: Xabier, Harkaitz, Mati, Benantzio eta Boli.

Errugbian jokatu nahi duten gaztetxoak bihar 19:00etan azaldu Landarera. Kadeteetan ekipo mistoa izan ohi da, jubeniletan, aldiz, neskak eta mutilak aparte jokatzeko dute. Jube-

niletan ez da nesken talderik baina, jende nahiko azalduko balitz osatzeko asmoa dute.

Nagusitako 2 taldeak hasi dira entrenatzen eta larunbatean izango dute lehen lagun arteko partidua.

PRENSAURREKOA

Datorren ostegunean prentsurrekoa izango da aurtengo denboraldiari buruzko xehetasunak emateko. Lekua eta ordua zehazten dituztenean *Kronikak* jakinaraziko dizue. □

SAN AGUSTIN EGUNA

Meza eta 'arrantxua' Agustinatan

Arratsaldeko zazpitan izango da eta Don Manuel parrokoak emango du.



Agustinatako eliza. Erdian San Agustin, eliza berri zutenean ekarria.

BEREN Santuaren eguna dela-eta, Agustinatako konbentuan ospakizunez betetako asteburua izan dute. Larunbat eta igandeko parrokoak mezak bertako elizan izan dira, gaurkoa bezala.

ELIZA BETETA

Hala egon dela esan die monjek *Kronikari* (250-300). Gaurko ere jendetza polita espero dute.

PASTELAK JANEZ TERTULIAN

"Jendearekin egoteko eta hitzegiteko aukera polita" da. De-nak "oso gustora" egoten omen dira. □

36AN IHES EGIN ZUTENEI ETA LLUIS COMPANYSI OMENALDIA

Bihar Hernaniko ahotsak 'Nazioarteko Zubian'

Ozenki eta Kantuz abesbatzek Irun eta Hendaia arteko mugan kantatuko dute. 22:30etan.

GERRA Zibilean, orain 64 urteko momentu gogorak gogoratuko dituzte bihar Bidasoako mugan, eta hernaniarrak han izango dira. Gertakizunak azkenerako oihartzun

haundia hartu du. Ibarretxe lehendakaria eta Pujol, *Generaliteko* burua, bertan izatekoak dira. Ostegunean, berriz, Lluís Llach eta Tapia eta Leturia Victoria Eugenia. □

BERTSOLARITZA

Bi hernaniar finalera Zarauzko Lizardi Sarian

Estitxu Eizagirre eta Iker Osa dira sailkatuak.



ATZO eta herenegun Lizardi Sariko sailkapen saioak jokatu ziren. Bertan, lau hernaniar hartu dute parte. Jon Iraola eta Ixiar Eizagirrek ezin izan zuten finalerako sailkatu, bai

ordea, Estitxu eta Ikerrek.

Bi bertsolari hauek azken aldiko gazteentzako txapelketa gehienetan finalera sailkatu dira eta maila ona erakutsi dute. □

PELOTA

Erroizenea eta Argotek ezin

Gorriek atzean erabaki zuten partidua. Mendizabal izan zen lauetatik onena.

MENDIZABAL eta Gurrutxagak irabazi zuten atzo Antiguako jubeniletako finala. Mendizabalek asko gozatu zuen eta Argotek errebotea lagun jokatu behar izan zuen. Erroizeneak txukun aritu arren atzera jokatu zuten gorriek eta 22 eta 13 irabazi zuten. Tanteoa: 3-0 / 3-1 / 6-1 / 6-3 / 7-3 / 7-4 / 7-5 / 9-5 / 9-7 / 13-7 / 16-10 / 18-13 / 22-13.

'BINGO LONDRES'

Bihar jokatu da erremonteko finalurrekoa. Zeberio II eta Lizaso izango dira aurrez aurre 16:00etatik aurrera.

Irabazleak "Koteto" Ezkuraren auka jokatu beharko du. Doneztebearrak 5 urtez jarraian irabazi du buruzburukoa eta aurtengo ere favoritua bera da. Finala datorren larunbatean Galarretan bertan. □

CD-HERNANIREN BATZARRAK DATORREN OSTEGUNEAN

Aurrekontuak eta lehendakaria aukeratzea dira puntu nagusiak

AURREDENBORALDIA futbol zelaietan ez zik bulegoetan ere hasi da. Datorren ostegunean C.D. Hernanik batzar bikoitza egingo du. Lehendabizikoa ohizko batzarra.

Puntu nagusiak

- Aurreko bi denboraldietako memoria ekonomikoa.
- Datorrenerako aurrekontuaren proiektua.
- Patronatua eta CD-Hernaniren arteko hitzarmena berrestea.

LEHENDAKARIA AUKERATU

Segidan, ez-ohizko batzarra egingo dute. Hemen lehendakaria aukeratzea da puntu bakarra. Rikardo Ramos da oraingoa. Bi batzarrek Sandiusterriko aretoan, arratsaldeko zazpiak eta erdietatik aurrera. □



Rikardo Ramos, CD-Hernaniko lehendakaria.


EHIZA-LEKUEN ZOZKETA TXANTXANGORRIN

'Postu' baino ehiztari gehiago

BEDA erdia zabaldu zenez geroztik ehiztari mogimendua hasi da Hernaniko mendietan. Aranburu eta Arizmendi ehiza-lekuetako zozketak egunero egiten dituzte Txatxangorri, baina, apenas denentzat tokirik izaten den. Larunbat iluntzean ere 60 ehiztari bildu ziren, baina, 40 postu zozketan.

TORTOLA, USOA ETA GALEPERRA

Oraingoz, hiru pizti horiek dira bota litezkenak. "Tortola giroa da ona hau" -esaten dute- "Eguraldi garbiarekin etorri eta lainoarekin bertan gelditzen da-eta." □



Ehiztariak Txantxangorriko postu zozketan.

GUTUNAK

Zuek ere gorrak*

Nik zerbait gehiago espero nuen. Zurekin aurrez-aurre egon eta oinezkoon arazoak azaldu nizkuzun; eta konponbideren bat edo beste eman ere bai. Orain zer da-eta, konpondu beharrean okerrago utzi.

Hirigintza zinegotziarekin, bai, zurekin egon nintzen, Fraile. Lizeaga kalean oinez pasa beharra daukagunon arazoak kontatu nizkuzun; orduan konpondu berria zegoen, gainera. Imaginazioa auzoan, eta soluzioa neri

eskaini zenidan arretaren neurrikoa, hor nonbait.

Probatu zerorrek. *Paradorra* joan eta etorri oinez egin hiru-lau egunetan: erosketa edo ume karroarekin datorren edo dihoanen bat bilatuko duzu bidean; orduan, karreterara atera beharko duzu derrigorrean, pasa edo pasatzen utzi eta espaloia bueltatu ostera; bitartean kotxe batek harrapatzen ez bazaitu behintzat.

200 metroko rekta da, eta azkar joateko bidea ematen du; gainera, orain berri eta bi zebra-bide kendu egin

dituzte. Berez, abiadura jaitzen dutenak zoruan jartzen diren koskak dira, baina, zebra-bideek ere egiten dute zerbait.

Giza gorputzean ere, aurpegia eta ipurdia berdin zaindu beharrekoak dira. Kale hau udaletxe azpiko atzeko tuneletik ateratzen bada ere udal zerbitzuek jardun eta guzti apaindu dituzten haientxen adinako arreta eta zaintza behar du. □

Julen Lizaso

(Erredakzioak itzulita eta laburtua-* "Iguale de sordos")

LEHIAKETA

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



KRONIKAK proban jarriko zaitu. Ia Hernani zenbat eza gutzen duzun benetan! Guk, astelehenero, herriko leku edo gauza baten argazkia aterako dugu eta zuk zein tokitan dagoen asmatu.

■ **Erantzunak:** *Kronikako* buzoian utzi: Larramendi 11, behe. Izen-abizenak eta telefonoa jarri. **Aurreko astekoa:** Latxeko fabrika zena.

■ **Epea:** astebete.

HERIOTZAK

Julia Barrondo Fdez de Larrea andrea

Atzo hil zen 96 urte zituela.

Hileta Elizkizunak gaur 12:00etan Santa Maria Magdalena Egoitzako Kaperan

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943464622
943 335533
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

Asteartea

- ▶ Egunez: Irigoyen
Elkano, 2
☎ 943552087
- ▶ Gaez: Arzallus
Andoain. Plazaola, 17
☎ 943591514

FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Chucla
Kardaberaz, 48
☎ 943551793
- ▶ Gaez: Ansa
Andoain. G. Ondarreta
☎ 943591302

Asteazkena

- ▶ Egunez: Chucla
Kardaberaz, 48
☎ 943551793
- ▶ Gaez: Diaz
Andoain. Nagusia, 19
☎ 943592057

IRAGARKI MERKEAK

Neska behar da, etxekolanak egiteko eta bi ume zaintzeko. Tel.: 943 55 08 66 - 606 13 41 09.